

# Liburu biltegiak ala liburutegiak?

Mikelazulo Kultur Elkartea

**L**iburua edonoren esku egotea gertaera arrunt berria da. Ehun urtetik hona baino ez da edonork, pobre edo aberats, liburu bat irakurtzeko aukera izatea. Europan behintzat. Edo agian gutxiago. Izan ere noiz sartu dira liburuak langileen etxeetan? Edo baserrietan? Liburuak aberatsen gauza zen. Alde batetik, XX. mendera arte herritar gehienak analfabetoak ziren, beraz nekez irakur zezaketen ezer; bestalde, irakurtzen jakinda ere, liburuak lortzea ez zen gauza erraza, alde batetik langile ekonomia justu-justu bizitzeko adinekoa zelako, eta gainera, liburu den den eskasia. Horren aurrean, jendarte modernoetan emandako aurrerapen handienetako bat izan da XIX. mendean zabaldu zen herri eskolen sarea; baina batez ere XX. mendea izan zen langileen seme-alabak eskolaratzearen bidea zabaldu zuena. Eskolaratze horrek herritar alfabetatuak lortu zituen, gehiago edo gutxiago. Jakina, ez dago azaldu beharrik alfabetizazio hori estatuek gailentzen zituzten hizkuntzetan eman zela, ez herritar askok eta askok berezkoa zuten hizkuntzan, baina hau beste arazoa da, orain aztertzeko parada hartuko ez duguna. Alfabetizazio masibo horri esker irakurketaren aukera zabaldu egin zen, baina oraindik liburuak ez zen erraz eskura zitekeen zerbait. Beraz, eskolekin batera, udalek liburutegiak zabaltzen hasi ziren, edozein herritarrek liburuak eskura eta debalde izan zitzen. Horrela hasi ziren sortzen eta zabaltzen liburutegi publikoak. Jakina, bi hitzetan laburbiltzea halako prozesu luze bezain korapilatsua ez da, behar bada, zilegi izango eta gainera eztabaidarako aukera zabalegia uzten du, baina, azken finean, orain interesa-

tzen zaiguna aipatzea da liburutegi publikoen sorrera nahiko berria dela eta gainera liburuak herritar guztiei helarazteko asmoz.

Ordutik hona aldatu dira bai gauzak. Orain eskola ez da oinarrizko lau ezagutza eskaintzeko erakunde, askoz gehiago da; eboluzio ikaragarria eman du, bai pedagogikoki zein sozialki. Akatsak eta hutsuneak izango dira, baina XX. mendean hasi eta gaur arteko bidea ez da makala izan. Eta berdin esan dezakegu udal liburutegiei buruz. Liburuaren mundua izugarriko aldaketa eman du eta ez da liburu gaur egun zerbait arraroa edo bitxia etxeetan. Haurrek aski liburu pilatzen dituzte apaletan, batzuk gustuz irakurriak, beste batzuk eskolan derrigorrez aginduak, beste batzuk oparitutakoak eta bertan ahaztuak akaso. Eta aldaketa horretan, liburutegiek beren lekua hartu dute. Gaur egun ez dira liburutegi publikoak liburu biltegi soilak; ez dira liburuak uzteko mantentzen den eraikina; ez dira azterketa garaian ikasteko lekua. Edo hobe esanda, guzti horiek ere badira, baina ez hori bakarrik. Gaur egun bilatzen da liburutegiak herriko kultur dinamikan euren aportazioa egitea literaturaren aldetik, liburuarekin zer ikusirik duen guztiarekin. Hori dela, eta hainbat ekitaldi antolatu ohi dira liburutegien eskutik. Liburuaren aurkezpenak, poesia errezitaldiak, liburuaren egunaren astea, ipuin kontaketak, hitzal-diak, mahai inguruak... Liburutegiak liburuaren agertzen diren era guztietako munduak herritarrei eskaini nahi dizkiete, eta era berean herritarrek ere dinamika horietan parte hartzea bultzatu ohi da. Halaxe sortu ziren irakurle taldeak. Irakurle taldeak proposatutako liburu baten irakurketaren ostean bildu eta taldean komentatzeari ekiten diote. Honela gustuko ekintza bat, irakurtzea alegia, egiteaz gain, beste batzuekin komentatu dezake sortzen zaizkion zalantzak edo eragin dizkion irrikak. Baina, eta gainera, liburutegia leku bizi bat bilakatzen da, irakurtzea maite duenarentzat erreferentzia bihurtzen da eta liburuak jasotzeaz gain, bestelako ikasgaiak ere jasotzeko lekua izango da.

Hau da, esango genuke, hainbat urtetatik hona udal liburutegi askok hartu duten bidea, baliabide urri edo nahikotxoekin. Liburutegia euren herrietan kultur erreferentzia izatea bilatzen dute, ez liburu biltegi soilak. Eta horretan zer ikusia izango du eraikina



beraren egokitasuna. Hori dela eta, gero eta gehiago, liburutegiak bertan goxo egoteko baldintza arkitektonikoak zaintzen dira. Argitasuna, isiltasuna, mobiliario eroso, gelen lekutze egokia eta abar. Liburuaren jendartean garrantzia hartu duen moduan liburutegiek ere gero eta garrantzi handiagoa hartzen dute.

Eta gure herrian ere eboluzio nabarmena eman du liburutegiak. Kapitanenea kaleko liburutegi eskasetik, Galtzarabordako Villa-Cristal-era. Eta azkenik, bizitzaren paradoxak, cuartelillo zaharrea egokitu zen liburutegi berria. Adar bat, haurrena hain zuzen,



Xenpelar etxean antolatu zen, liburutegi bakarra bi eraikinetan banatuz. Eta halaxe eman ditu urteak. Azkenik, beharrezko berrikuntza dator eta Udal liburutegia beste egoitza batean kokatzeko proiektua dago. Lekuona okindegia

izandakoa liburuaren gordelekua izango da. Eta bazen garaia gure herriak udal liburutegi txukun bat izateko. Ez gara gu kontra jarriko halako egitasmoen aurrean, ezta kexatuko ere gastatzeko asmoz dagoen diruarekin, izan ere kulturaren oraindik nahiko eskas izaten baita gastatzen dena, askotan gastatzen den hori, inongo irizpiderik gabe xahutzen den arren. Liburutegi berria egiterakoan orain arte jaso izan diren egitasmoak eraikinari dagozkio; nolako itxura izango duen, espazioen banaketa nola egingo den, hainbat metro karratu honetarako, beste horrenbeste beste baliabide halakoetarako... Entzun ez duguna ordea zera da, ea zer demontrezko dinamika bultzatu eta abiaraziko diren liburutegitik. Ez dugu inon ikusi, irakurri edo entzun zer nolako ekitaldiak egiteko asmo dagoen; ez dakigu aurrekonturik aurreikusten den halako egitasmoak burutu ahal izateko. Alegia, badakigu liburutegia non egingo den, nolako izango den gutxi gora

behera, bertan egoteko hainbat espazio izango direla, hainbeste liburu eta ikus-entzunezko euskarriak, baina ez dakigu itxuraz liburu biltegi txukuna, eta agian polita, besterik izango ez den eraikina altxatzeko merezi ote duen sei miloi t'ardi euro gastatzea.

Liburutegiak, orain arte aldarrikatzen ari garenaz, ez lukete izan behar liburu biltegiak, edo ikasleak ikasteko erabiltzen dute espazioa. Liburutegiak literaturaren inguruan eman daitezkeen hamaika dinamika ezberdin bultzatu, sustatu eta antolatzeko lekua izan beharko luke. Gure herrian orain arte ez dugu halakorik ezer ikusi, ezta sumatu ere. Gure herrian liburuaren eta literatura aitzakia hartuta egin ohi diren ekitaldi ugari inongo harremanik ez dute bertako liburutegiarekin. Udal liburutegiak ezer gutxi eskaintzen dio gure herriko literatur eta kultur munduari. Eta orain liburutegi berria egiteko asmoa dagoela, ezinbestekoa da, horren gainean aritzen diren herriko hainbat jende euren proposamenak eta ideiak azaltzeko aukera ematea. Kultur batzordetik hasi, liburutegiko langileetatik jarraituta, eta erabiltzaile zein literatur zale den edonor esateko eta entzuna izateko aukera beharko luke, liburutegi berria paper biltegi bat izan ez dadin. Eta kontuan hartu beharko dira auzoak ere. Gurea bezalako herri handi batean liburutegi bakarra izatea, liburuaren kultura zokoratzea baita. Auzoetan liburutegien presentzia nabarmena beharko luke izan, eta irakurtzen gustukoa duenak, aukera izan beharko luke etxetik gertu bera bezalako jendearekin afizio horretaz aritzeko.

Liburutegi berria martxan jarriko da, aukera polita da gauzak beste era batera egiten hasteko. Dirua alferrik ez xahutzeko. Gure herrian liburuak eta literaturak presentzia benetan duina izan dezaten. Bestela, hilobi zurituak baino ez ditugu altxatuko; eta, denok dakigun bezala, hilobi zurituei ere, ustel usaina darie. ■

